

ARRAIN AZOKA PINTXO TXAPELKETA 2025

1. artikulua

DEIALDIA

Arrain Azoka Elkarteak Arrain Azoka Pintxo Txapelketa 2025 antolatuko du.

Profesionalen modalitatea: 2025eko apirilaren 11tik maiatzaren 16ra bitartean.

Amateur modalitatea: 2025eko apirilaren 24tik maiatzaren 16ra bitartean.

2. artikulua

PARTE-HARTZAILEAK

Parte hartzeko bi modalitate daude: profesionalen modalitatea eta amateurren modalitatea (kuadrilla eta txoko gastronomikoak).

Aurton Arrain Azoka Euskaraldiarekin batera dator, eta Arrain Azokako egitarau osoa euskaraz izatea da helburu, beraz, pintxoaren aurkezpenak euskaraz egin behar dira, eta horretarako gaitasunik ez duenak, itzulpen zerbitzua izango du, aurkezpena bideratu ahal izateko.

Profesionalen modalitatea.

Bermeoko ostalaritza-establezimenduek parte hartu ahal izango dute Arrain Azoka Pintxo Txapelketan, barra bat badute eta urtean zehar pintxo eskaintza jarraitua badute. Zalantzarik izanez gero, erakundeak jarduera lizentziaren kopia eskatu ahal izango du.

Amateur modalitatea

Bermeon egoitza duten txokoek edo Bermeoko kuadrillek parte hartu ahal izango dute, baldin eta adinez nagusiak badira eta pintxoak egin eta aurkezteko arduradunak sukaldari profesionalak ez badira.



3. artikulua

LEHIAKETARAKO PINTXOAK

Lehiakideek pintxo proposamen bakarra aurkeztuko dute. Pintxoaren osagai nagusia arraina izango da, edozein modalitatetan:

- ✓ Kantauri itsasoan baxurako flotak arrantzatutakoa
- ✓ alturan, Bermeoko armadoreak dituzten ontziek arrantzatutako arraina
- ✓ Bermeoko arrain kontserba lantegietan ekoiztutako produktuak

Bi edo hiru mokadutan kontsumitu daitekeen elaborazio gastronomikoa hartuko da pintxotzat, eta ez da errazio erdirik onartuko.

Lehiakideek beren proposamen gastronomikoa aurkeztuko dute, eta "pintxo edo banderilla" formatuan aurkeztu beharko dute nahitaez (ogixerra tradizional baten gainean, edo zotz batean txertatuta, atzamarrekin hartu eta bi edo hiru mokadutan dastatu ahal izateko). Lehiaketaren helburua da Bermeoko tabernen sektorea indartzeko eta sustatzeko, eta arrantza produktuekin sukaldaritza sustatzeko eta arraina sukaldatzeko interesa pizteko.

Lehiaketako pintxoetako produktuen kostu guztiak, euskarriak, baxerak eta proposamen gastronomikoa osatzeko behar den beste edozein elementu parte-hartzailearen kontura izango dira.

4. artikulua

INSKRIPZIOA

Profesionalen modalitatea:

Hautagai guztiak turismo bulegora bidali beharko dute inskripzioa martxoak 14a baino lehen helbide elektronikoz: turismoa@bermeo.eus

Izenematea guztiz doakoa da, baina lehiaketako 3 pintxo eta edari bat eskaini beharko dizkiote epaimahai profesionalari (epaimahaia behar den moduan egiaztatuko da euren lokaletan)

Amateur modalitatea:

Hautagai guztiak inskripzioa turismo bulegora bidali beharko dute



apirilaren 21a baino lehenago helbide elektronikoz:
turismoa@bermeo.eus

5. ARTIKULUA

LEHIAKETAREN FORMATUA

Profesionalen modalitatea

Apirilaren 11n, ostirala, pintxo guztiak lehiaketara aurkeztuko dira udal azokako plazan 18:00etan eta pintxo hori apirilaren 12tik 27ra egongo da eskuragarri parte hartzen duten establezimenduetan eguerdiko 12:00etatik 14:00ak arte.

Apirilaren 11an azokan, pintxoak muntako dira, horretarako aurreko prestakuntza guztia eginda. Finalean, bai egin behar da pintxo osoaren ekoizpena, ezin izango da ezer prestatuta ekarri.

Lehiaketan pintxoak dastatzen dituzten bezero guztiek lehiaketan pintxorik onenen alde bozkatu ahal izango dute, QR bat eskaneatuz gailu mugikorren bitartez, apirilaren 12tik 27ra bitartean. (Botoa baliozkoa izan dadin, kontsumisioaren tiketaren argazkia erantsi behar da).

Lokal bakoitzean, pintxo parte-hartzailea identifikatuta egongo da, eta ekitaldiaren poster bat egongo da, QR kode batekin. Pertsona batek establezimendu guztietan eman ahal izango du botoa, baina lokal bakoitzerako baliozko boto bakarra onartuko da.

Boto hauetatik herri bozketaren finalista bakarra egongo da.

Gainerako 2 finalistak antolakuntzak aukeratutako 3 epaimahai profesionalen bidez bozkatuko da, pintxoek lehiaketarako barran egon behar duten egunetan zehar lokaletatik pasatuko direnak. Herri bozketakoa eta profesionalak aukeratutakoa, berdina izango balitz, lehenetsuna izango du profesionalen atalean, eta herritarren botoekin bigarren dagoena, pasako litzateke finalera herri bozketaren finalista moduan.

Bezeroek eta epaimahai profesionalak emandako bozketen arabera, 3 proposamen onenak izango dira finalistak.

Amateur modalitatea

Apirilaren 24ean pintxoak prestatu eta aurkeztuko dira Bermeoko azokako plazan.



Partehartzaileek gasezko su txikiak izango dituzte eskuragarri pintxoak prestatzek. Gainerako etxetresna elektrikoak ezingo dira erabili, instalazioek ez baitute horretarako aukerarik ematen.

3 profesionalek osatutako epaimahai batek aukeratuko ditu maiatzaren 16ko finalera igaroko diren hiru pintxoak.

Parte-hartzaile guztiek konpromisoa hartzen dute, lehiaketa honetako finalista izendatzen badituzte, maiatzaren 16an, ostiralean, 18:00etan, Arrain Azokako karpa nagusian egingo den finalean aurrez aurre parte hartzeko, azokaren beraren programaren barruan.

Lehiaketa profesional eta amateurraren finala, leku eta ordu berean izango da.

Lehiakideek 45 minutu inguru izango dituzte karparen eremu publikoan pintxoak egiteko, amaitzeko eta aurkezteko eta lehiakideek aldez aurretik jakinarazi beharko dute zer premia dituzten, antolatzaileek aurreikusitako eta behar diren denborak antola ditzaten.

Parte-hartzaileek laguntzaile bakar batekin parte har dezakete.

Azken fasean parte hartzeko hurrenkera zozketa bidez zehaztuko da, eta emaitza garaiz eta behar bezala jakinaraziko zaio parte-hartzaile bakoitzari.

6. artikulua

EPAIMAHAIA

Arrain Azoka Pintxo Txapelketak honako epaimahai hauek izango ditu:

Modalitate profesionalerako herri-epaimahaia. QR kode bidez bideratuko da.

Finalerdi profesional eta amateurreko epaimahaia: Finalera sartuko diren lehiakideak hautatzea du helburu. Gastronomiaren arloko 3 profesional kualifikatuk osatuko dute.

Azken epaimahai profesionala eta amateurra. Arrain Azoka Pintxo Txapelketako sariak ezartzea du helburu. Gastronomiaren munduko 3 profesional kualifikatuk osatuko dute, eta lehiaketako bi modalitateen finala epaituko du.



7. artikulua

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Epaimahai profesionalek honako balorazio-irizpide hauen arabera prestatuko dituzte beren iritziak:

- Balio gastronomikoak (gustua, ñabardurak, atzealdea, zaporea...) 45 puntu.
- Pintxoaren bideragarritasuna pintxo-taberna baten zerbitzuaren testuinguruan. 20 puntu
- Originaltasuna/Teknika/Aurkezpena: 15 puntu.
- Produktua (identifikazioa eta protagonismoa): 20 puntu.

Euskal gastronomiaren tokiko produktuaren edo zapore tradizionalako produktuaren erabilera baloratuko da.

Puntuazioaren arabera ezarriko da sailkapena, handienetik txikienera, eta puntuaziorik handiena lortzen duenak irabaziko du Arrain Azokako Pintxo Txapelketa.

Puntu-berdinketarik egonez gero, Balio Gastronomikoen epigrafean puntu gehien lortu dituenak sailkatuko da lehenengo, eta, berdintasunak bere horretan jarraituz gero, sailkapen onena lortuko du Bideragarritasuna epigrafean puntuazio handiena lortu duenak, eta, berdintasunak bere horretan jarraitzen badu, Originaltasuna eta Teknikoa epigrafean puntuaziorik handiena lortu duenak.

8. artikulua

SARIAK

Profesionalen modalitatea

Txapelduna
Txapela, eta diploma

2. sailkatua
Diploma

3. sailkatua
Diploma

Amateurren modalitatea

Txapelduna
Txapela eta diploma



Bertako kontserba-fabrikak bisitatzea eta dastatzea eta itsasontziz ibilbidea (6 pertsona)

2. Sailkatua

Diploma

Esperientzia bertako kontserba-fabrian (6 pertsona)

3. sailkatua

Diploma

Esperientzia bertako kontserba-fabrian (6 pertsona)

9. artikulua

JANZKERA

Arrain Azoka Pintxo Txapelketan parte hartzen duten guztiek mahonezko jantzi beharko dira, lepoan zapia dutela, bai Udal Azokan, bai finalean.

10. artikulua

ARGAZKIA ETA BIDEOA

Parte-hartzaile guztiek erraztasun egokiak emango dituzte antolakuntzak argazkiak ateratzeko orduan.

11. artikulua

OINARRIAK ONARTZEA

Parte-hartzaile guztiek berariaz onartzen dituzte oinarri hauek, izena ematerakoan:

- Erakundeak egile-irudia izateko eskubidea izango du, bai eta lehiakide bakoitzak bere komunikabide publikoen bidez aurkeztutako materiala erreproduzitzekoa ere.
- Antolakuntzak beretzat gordetzen du lehiaketa sustatzen den bitartean datak aldatzeko eskubidea, hautatutakoei alde zuzenetik horren berri eman ondoren.
- Txapelketa honetako sariak pertsonalak eta besterenezinak izango dira, eta ezingo dira inola ere aldatu, konpentsatu edo laga irabazleak hala eskatzen badu.
- Irabazleek oinarri hauen arabera eskainitako saria jasotzeko eskubidea baino ez dute izango, eta ezin izango da kontraprestazio ekonomikorik edo aldaketarik jaso uko egiteagatik.
- Erakundeak beretzat gordetzen du txapelketa aldatu edo bertan behera uzteko eskubidea, baldin eta ezinbesteko edo ustekabeko



inguruabarrak gertatzen badira.

- Sarien irabazleek baimena ematen diote Arrian Azoka Elkarteari bere izena eta irudia, errezetak, argazkiak eta bideoak, Arrain Azoka Pintxo Txapelketari dagokion guztian erabiltzeko, oraingo edizioan eta etorkizunekoetan, inolako ordainik gabe.
- Saritutako errezeten titularrak eta lehiaketan parte hartzen duten gainerakoek bermatzen dute egile-eskubideak, jabetza industrial eta/edo intelektuala, berariazko baimena edo proposatutako errezeten gaineko beste edozein motatako baimena dutela, eta Arrain Azoka Elkartearen alde lagatzen dituzte, Arrain Azoka Pintxo Txapelketarekin zerikusia duen guztian edozein komunikabidetan erabil ditzan, Internet barne (sare sozialak, web orria...), inolako denbora edo lurralde mugarik gabe eta horregatik inolako kontraprestazio ekonomikorik eskatu gabe.
- Parte-hartzaileen errezetak egileena izan beharko du, eta Arrain Azoka Elkartek ez du bere gain hartuko hirugarrenen jabetza intelektual/industrialeko eskubideen urraketei buruz edo beste edozein eratako eskubideei buruz aurkezten duten edozein erreklamazioren erantzukizuna.

